

B1

1. BATXILERGOA AUKERAGAIAK

✓ FRANTSESA 2. ATZERRIKO HIZKUNTZA I.

Batxilergoan bigarren hizkuntza frantsesa ikasgaia dago pentsatuta ikasleen komunikaziorako gaitasuna hobetzeko, beti kontutan hartuta mugan bizi garela eta gure ikasle batzuzentzako ezinbestekoa izango dela frantsesa menperatzea etorkizunean.

Horregatik klase orduak saiatzen gara are eta komunikatiboagoak izaten, lexikoa, ahoskera eta ulermena landuz.

Frantses departamentuak prestatzen ditu ikasleak Hizkuntza Eskola Ofizialeko azterketarako eta gure helburua da ikasle gehienak B1 titulu ofiziala ateratzea. B1 azterketa pasatzeko izaten dituzte bi aukera, batxilergoko bi kurtsoetan, baina gehienak lehenengo kurtsoak ateraz gero, bigarreanean B2 azterketa prestatzen hasten gara.

Egia esan, oso maila polita lortzen dute institutuko bukaerarako eta Hizkuntz Ofizialeko Eskolako emaitzak beti izan dira oso onak.

Urtero egiten dugu hiru egunetako bidai bat batxilergoko ikasleekin, Bordelera. Bidaia honetan, frantsesa praktikatzeko eta hiri bat ezagutzeko gain, lortzen dugu frantsesa egiten duten Doneztebe eta Lekarozeko ikasleak hobeto ezagutzen elkarri eta horrek asko errazten du gero klaseko martxa, ez baitiote horrenbesteko lotsa ematen frantsesetik hitz egiten hastea beraien artean.

✓ DISEINU DIGITALA

Gaur egungo curriculumaren osagarri izan nahi du irakasgai honek, arlo zientifiko/teknologiko zein humanistikoko ikasleak elkartuko lituzkeena. Nahitaezkoa bihurtu den gaitasun digitala indartzera dator irakasgai hau.

Proiektu honetan artearen esparru desberdinak aztertuko ditu edizio grafikoaren bidez: arkitektura, diseinu artistiko eta industrial, bideogintza...

Helburuak

- Irudiaren adierazkortasuna eta ikusi bidezko komunikazioaren estrategiak lantzea: diseinu grafiko, kartelgintza, diseinu industrial, seinaleak, e. a.
- Irudien ediziorako software libreen erabilera lantzea.
- Arte garaikide eta diseinu sorkuntzak ezagutu eta baloratzen ikastea
- Ikasleak behar eta lanei modu sortzailean aurre egiten trebatzea.
- Informazio grafiko-bisualaren balioaz jabetzen eta hauen sorkuntzan trebatzea.
- Elementu digital eta baliabide grafiko tradizionalen uztartzea

✓ INFORMAZIORAKO ETA KOMUNIKAZIORAKO TEKNOLOGIAK (IKT).

Aukerako irakasgai honen edukiak artikulatzeko ardatzak hauexek dira: teknologia hauek erabiltzea informazioa oro har prozesatzeko tresna gisa; giza zientzien, zientzien, tekniken edo arteen arlo espezifikotan aplikatzea, bai eta beren eragina aztertzea eta gizartearen, ekonomiaren eta kulturaren esparru guztietan duten eragina ere aztertzea. Eduki horiek kontzeptuei baino prozedurei dagozkie, Informazioaren eta komunikazioaren teknologia irakasgaiaren izaera kontuan hartuta, informatikako baliabideetan alfabetatzeko, Batxilergo bakoitzaren gainerako irakasgaien zerbitzuko tresna gisa hartzen baita.

Hezkuntzaren betebeharra da ikasleei gaitasuna ematea beren garaiko kultura uler dezaten. Baliabide teknologiko berriek errealitatea antolatu, adierazi eta kodifikatzeko modu berri baterako aukera ematen dute esparru horretan. Horrez gain, balio handiko tresnak dira gaitasun intelektualak garatu eta trebetasun berriak eskuratzeko. Era berean, beharrezkoa da analisi kritikorako eta informazio hori modu egokian erabili ahal izateko prestakuntzarako elementuak garatzea. Beraz, xedea da herritarrek gai egitea teknologia berriak erabili eta haien inplikazio sozial eta kulturalak, haien ahalbideak eta aplikazioak ezagut ditzaten. Horrek beharrezkoa egiten du teknologia hauek sartzea, eratzen ari den kultur eta balore sistema berri horren gainean gogoeta egiteko jarrera bultzatzen saiatzearekin batera.

Irakasgai honen garapenak ondoko gaitasun hauek bereganatzen lagundu behar die ikasleei:

1. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek gizartean duten eragina ezagutu eta jarrera errealista hartzea arlo informatikoaren aurrean, haren bilakaeraren eta etorkizunaren aurrean.
2. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien tresnak erabiltzea informazioa hautatu, berreskuratu, transformatu, aztertu, igorri, sortu eta aurkezteko. Funtsean, norberaren lana hobetzea baliabide teknologikoak erabiliz.
3. Ikasleek ikasten duten modalitateari dagozkion problemak ordenagailuaz baliatuz ebaztea.
4. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien iraultza ekoizpen, industri edo arte prozesuetan betetzen ari den papera baloratzea, bai eta ondorio ekonomiko eta sozialak ere.
5. Modalitateari dagozkion tresna informatikoez baliatzearen inguruko oinarritzko kontzeptu eta prozedurak erabiltzea. Edizio, kudeaketa, kalkulu, marrazketa, diseinu, kontrol eta abarretarako programak.
6. Informatika programa baten bidez, oinarritzko mekanografia praktika egitea.

✓ ZINEA ETA HISTORIA.

- **Batxilergoko ibilbide guztientzako aukerako irakasgaia** da.
- **Ikasleen** izpiritu kritikoa, elkartasuna eta ikusmin teknologikoa lantzeko eta mezuak interpretatzeko balio du, eta gainerako irakasgaiekin bateragarria da.
- **Hedabideak** gure gizartearen informazioa, kultura eta ideologia zabaltzeko tresnak dira.
- **Historiarekiko interesa** pizten laguntzen du. Horrela ikasleek hobeto ulertzen dute lehenaldia eta lehenaldia behin ongi ezagututa, orainaldia ulertzeko balio du ere, etorkizuna eraikitzeke orduan.
- Irakasgaia **bederatzi** gaietan zatitua dago. **Metodologiak teoria eta praktika** uztartuko ditu, **oinarria filmeak ikustea** izango delarik.